

**ERABAKIA, 2015eko UZTAILAREN 3koa, EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO GERENTEARENA, HORREN BIDEZ, INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIO TEKNOLOGIEN GERENTEORDETZARAKO "INFORMATIKAKO TEKNIKARI ESPEZIALISTA" LANPOSTUA, ALDI BATEZ ETA EGINKIZUNEN ESLEITZEAN BETETZEKO DEIALDIA, 2015eko EKAINAREN 2koa, EBATZI DA.**

## **GERTAKARIAK**

**Lehenengoa.-** Euskal Herriko Unibertsitateko Gerentearen 2015eko ekainaren 2ko erabakiaren bidez deialdia argitaratu zen.

**Bigarrena.-** 2015eko ekainaren 29ko erabakiaren bidez, aipatutako deialdian onartutako lehiakideen behin betiko zerrenda argitaratu zen.

**Hirugarrena.-** Gerentzia honek deialdi honetan onartutako izangaiek adierazi eta egiaztatu dituzten merezimenduak baloratzeari ekin dio.

## **ZUZENBIDEKO OINARRIAK**

**Lehenengoa.-** Honako hauek dira aplikagarri:

- 2013ko uztailaren 4ko Akordioa, administrazio eta zerbitzuetako pertsonaleko lan kontratudunei eginkizunak esleitzeko prozedura barematua ezartzen duena.
- UPV/EHUko AZPko lan kontratudun langileen III hitzarmen kolektiboa.
- Deialdia egiteko UPV/EHUko gerentearen 2013ko urriaren 4ko erabakia eta horrekin bat datorren gainerako araudi aplikagarri orokorra.

**Bigarrena.-** Gerentzia honek eskumena du erabaki hau emateko; izan ere, gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu-arloak zehazteko eta eskumenen eskuordetzeko dena hartutako 2013ko urtarrilaren 30eko errektorearen erabakiaren bidez (2013ko otsailaren 13ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian), eskuordetu zaio horretarako eskumena.

**Hirugarrena:** Deialdiko lanpostuak Eginkizunen Ezleitzean erregimenaren bidez hornitzeko prozedura hau da: AZPko lan kontratudunen plangintza batzordearen 2013ko uztailaren 4ko Akordioa (AZPko lan kontratudunei eginkizunak esleitzeko prozedura barematua ezartzeari buruzkoa), UPV/EHUko Gobernu Kontzeiluaren 2013ko uztailaren 18ko bileran berrestatua,

**Laugarrena.-** Aipatutako prozedurak ezartzen du hautatua izango dela merezimenduak hurrenkera ordenatuan baloratu ondoren goren geratzen den pertsona. Eraberan, kontutan hartu behar da Akordioaren 4,2 puntua: "aldi baterako lan kontratudun langileak eginkizunen esleipenerako lan kontratudun finkorik egon ezean baino ez dituzte aukeratuko".

Horregatik guztiatik, eman zaizkion eskumenak erabiliz, honako hau

## ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Erabaki honetako eranskinetan jasota dauden baldintzetan eta aipatzen diren lanpostuak, hautatutako lan-kontratudun langileak aldi baterako lan kontratuaren bitartez, aldi baterako esleitzea.

**Bigarrena.-** Esleipena 2015eko uztailaren 6ko ondorio-datatz egitea. Esleipen hori indarrean egongo da 2013ko uztailaren 4ko akordioaren 8. artikuluan adierazitakoaren arabera.

**Hirugarrena.-** Erabaki hau eta dagozkion eranskinak argitaratzea UPV/EHuren webgunean.

**Laugarrena.-** Erabaki hau jakinaraztea interesdunari, Informazio eta Komunikazioaren Teknologien Gerenteordetzari eta nominen atalari. Har beza kontuan AZPren atalak.

**Bosgarrena.-** Erabaki honen kontra lan-auzibidera jo aurreko erreklamazioa jarri ahal izango da Gerentzia honen aurrean hilabeteko epean. Hilabete igaro eta ebazpena jakinarazi ez badiote langileak ezetsizat jo dezake erreklamazioa. Erreklamazioari ezezkoa emanez gero, edo ebazpenik jakinarazi gabe hilabete igaroz gero, epaitegi eskudunaren aurrean aurkeztu ahal izango du interesdunak demanda. Demanda jartzeko epea bi hilabetekoa izango da, aurretiazko erreklamazioa ukatu dela jakinarazten den egunetik edo administrazio-isiltasunez ukatutzat jotzen den egunetik kontatuta. Hori guztia, 4/1999 Legeak aldatutako azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legeko 125. artikuluan eta urriaren 10eko Gizarte-arloko jurisdikzioa arautzen duen Legeko 69,2. artikuluetan ezarritakoa betetzeko.

Leioan, 2015eko uztailaren 3an.

Errektorearen eskumenak eskuordetuta: 2013ko urtarrilaren 30eko erabakia (2013ko otsailaren 13ko EHAA).

GERENTEA

Sinatua: Miren Lorea Bilbao Arteché



## I. ERANSKINA

**2015eko UZTAILAREN 3ko ERABAKIA, UPV/EHUKO GERENTEARENA  
INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIO TEKNOLOGIEN  
GERENTEORDETZARAKO "INFORMATIKAKO TEKNIKARI ESPEZIALISTA  
TALDEKOA" LANPOSTUA ALDI BATEZ BETETZEKO DEIALDIA  
EBAZTEN DUENA (2015eko EKAINAREN 2ko ERABAKIAREN BIDEZ  
IRAGARRITAKO DEIALDIA)**

Esleipenduna: **JAVIER RIVAS ASCONDO**

Izena: Informatikako Teknikari Espezialista

Erref.: L 324

Zenbatgarrena: 23

Taldea: III

Lanaldia: Arautua

Kategoria profesionala: IKTko Teknikari Espezialista

Espezialitatea: Sistemen Informatika

Maila: 20

Hizkuntza eskakizuna: 2; derrigortasun data: 2002/12/31

Langunea: .INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIO TEKNOLOGIEN GERENTEORDETZA

Campus: BIZKAIA

Ondorioetarako data: 2015eko uztailaren 6a

II. ERANSKINA

PUNTUAZIOEN ZERRENDA - EGINKIZUNEN ESLEIPENA - 15/06/2 DEIALDIA																																
13	L. 324	Informatikako Teknikari Espezialista				Hor. 23	HE 2.02/12	INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIO TEKNOLOGIEN GERENTEORDETZA																								
ADJ	DNI	DEITURAK. Izena			ORD.	PUNT. GUZT.	ANTZIN.		R- Egin		R- Uko		O- Beste		EHUz ZERB.		R- Egin		O- Beste		BESTE ADM.		ZERB. GUZTIRA		TITUL.		HIZK.		EUSKARA		ELKAR.	
						Urteak	Punt.	Hil.	Puntuak	Hil.	Puntuak	Hil.	Puntuak	Hil.	Puntuak	Hil.	Puntuak	Hil.	Puntuak	Hil.	Puntuak	Hil.	Puntuak	Puntuak	Puntuak	Puntuak	Puntuak	HE	PL.	Puntuak		

b) Deiturako lanpostuaren talde kategoría eta espezialitate bereko lan kontratadun aldi baterako langilea

Adj	16063863L	RIVAS ASCONDO, JAVIER		13,0500	6	3			78	7,80			78	7,80											7,8	2,25		2	0	
	29031897	BASTERRECHEA ASTORQUIZA, LANDER		7,8000	3	1,5			30	3,00	8	0,80	38	3,80											3,8	2,50		3	0	
	30560594	LOPEZ AGUILERA, FERNANDO		0,0000	0	0																			0			2	0	